

VILLABONAKO UDALA
2013KO GARAPEN BIDEAN DAUDEN
LURRALDEKIN LANKIDETZA PROIEKTUAK



Erakunde eskatzailea: Haurralde Fundazioa

Proiektuaren izena: "Dindigul distrituko (India) landa emakumeen bizi kalitatearen hobetzea, beraien gizarte eta ekonomiaren hobetzearen bitartez"

Deialdiaren urtea: 2013

HAURRALDE FUNDAZIOA

PROIEKTUAREN DATU OROKORRAK

GKE ESKATZAILEAREN DATUAK

Izena: Haurralde Fundazioa
Helbidea: Paseo Colon, 50 Bajo
20002 Donostia
Tel: 943 327 162
E-maila: ong@haurraldefundazioa.org

Arduraduna: Patricia Ponce Pascuale
Postua: Zuzendaria
l. Eranskinean ikusi Haurraldeko informazioa

INDIAKO KIDEAREN INFORMAZIOA

Izena: Social Awareness and Development Organization for Women-SAADOW
Harremanetarako Helbidea: 1/275, Behind Central Theatre
Natham 624 401, Dindigul District
Tamil Nadu, India.
Tel.: 0091-04544 245111
E-maila: saadows@gmail.com
Arduraduna: Mr. P.Sonaimuthu M.S.W, PGDPM
Postua: Zuzendari Exekutiboa.

PROIEKTUA

Izenburua: "Dindigul distrituko (India) landa emakumeen bizi kalitatearen hobetzea, beraien gizarte eta ekonomiaren hobetzearen bitartez"
Herrialdea: Dindigul distritua, Tamil Nadu (India).
Iraupena: 12 hilabete
Aurrekontua 28.133,70 €

Villabonako Udalari eskatutako diru-laguntza: 2.963,79€

1. PROIEKTUAREN LABURPENA

Indiako emakumeen behar eta interesen inguruan egin den identifikazioa, IV. Eranskinean azaltzen diren eragite faktoreak eta 2. Puntuari agertzen den Haurralde eta SAADOW erakundearen arteko elkarlana oinarri harturik, Dindigul distrituko emakume eta neskatuen bizi kalitatea hobetzeko proposamen hau aurkezten da. Lan hau burutzeko estrategiak, ahalbidetze ekonomiko eta sozialaren eskutik datoz, non emakumeek teknologia berri eta diru sarrerak sortzen dituzten ekintzetan parte hartzeko aukera izango duten. Ahalbidetzea prozesu modura ulerturik, emakumeak formatze eta tratatze ekintzak jaso eta irakatsiko dituzte genero bortizkerian, Giza Eskubideetan, Osasun Sexual eta Ugalkorrean, autonomian, erabaki egokiak hartzeko auto-estimuan ... Bertako landa eremuan bizi diren emakumeen artean dauden giza sareak sendotu egingo dira eta gizonezkoen parte hartzea bultzatuko da emakumeen eta neskatuenganako joera bortitzen aurkako jarrera sorturik gizonengan.

2. KOKAPENA

Indiar Errepublikari Asiako hegoaldean aurkitzen da eta Pakistan mugakide du mendebaldean; Txina (Tibet), Nepal eta Bhutan iparraldean; eta Bangladesh eta Myanmar ekialdean. 7.000 km-ko kostara du Indiar ozeanoan eta duen kostatik gertu Ceilán edo Sri Lanka eta Maldivar irlak aurki ditzakegu. Hiri nagusiak Mumbai (20 milioi biztanle), Kalkuta (14 milioi) eta New Delhi, hiriburua (11 milioi) dira. India 28 estatu eta 7 Batasun-lurraldetan dago zatitua. Estatu guztiek eta bi batasun-lurraldek (Puducherry eta Delhi) hauteskunde bidezko gobernua dituzte. Beste batasun-lurraldeek gobernu zentralak aukeratutako administratzaileak dituzte eta, hortaz, presidentearen agindupean daude. 1956an, Estatuaren Antolatze Legearekin, estatuak oinarri linguistikoaren arabera sortu ziren. Ordu ezker, antolaketa hori ia ez da aldatu.

INDIA

Estatu eta batasun-lurraldeak barrutitan zatitzen dira (guztira 610). Barrutiak teshi-tan zatitzen dira, eta batzuetan herritan.

Hemen aurkezten den proiektua Tamil Nadu estatuan kokatzen da, Indiako hegoaldean dagoena eta zehatzago izanik Dindigul barrutian. Barruti honetan 8 herririk aukeratu dira Natham eta Sanarpatti Block eskualdetan (Ammappatti, Samudrapatti, Aravankuruchi, Kosukuruchi, Kuttupatti, Meyyampatti, Kyriapuram, Sirukudi), proiektua burutzeko. Herririk hauek Karanthamalai mendipean daude, Indiako hego-mendebaldean.

(Ikus kokapen mapa II. Eranskinean)

3. AURREKARIAK, TESTUINGURUA ETA JUSFIKAZIOA

3.1 Aurrekariak

Historia laburra eta elkarteko bazkideen ibilbidearen inguruko informazioa:

1990tik SAADOW, Tamil Naduko probintzian, emakumearen eta haurrei laguntzeko programak eta proiektuak burutzen hasi ziren. Aurrera eramaten diren lanen artean,

egindako ibilbidean gehien nabarmentzen direnak eta izandako ondorioengatik, hurrengoak dira:

1. Emakumeentzako Autolaguntza taldeak:

Lana egiten duten zonaldean, 112 talde daude. Emakumeentzako autolaguntza talde hauen bitartez, beraien ahalbidetzea lortzea, aurrezteko aukera izatea, beraien fondoak erabiltzen ikastea, banku kredituak eskuratzea eta sarrerak izango dituen ekintzak sortzea lortzen dute. Eta bide batez, beraien gizarteko zein ekonomiko egoera hobetuz, norberaren gaitasunak eta autonomia bultzatuz.

2. Haurrentzako programak:

Nattam kaleko haurrentzako etxe bat zuzentzen dute, non bertan, kaleko 30 haur inguru aurkitzen dira. Jatekoa, hezkuntza ez formala, higieene eta osasun ohiturak, bititzaren inguruko baloreak erakustea, e.a. eskaintzen zaie.

Baita ere, landa guneko haurrentzako, hezkuntzarako 10 zentro osagarriak dituzte. Gainera, 5 haurtzaindegi dituzte, landan lan egiten duten emakumeei nolabait erraztasunak eskainiz.

Guztira, landa guneko 169 hurrek dira zentro hauetako onuradunak.

3. Osasun prebentziorako programak:

Drogak, IHESA eta beste motatako gaixotasunentzako prebentzioak burutzen dituzte, esaterako minbizia. Modu indibidualean edo familian, asistentzia eta aholkularitza eskaintzen dute. Kontsulten bitartez, arazoaren jarraipen bat ere egiten dute.

Proiektuak burutzen eta biztanleriarekin duen esperientzia

2005ko apirilean, NHRFren laguntzarekin - Norvegiako Giza Eskubideentzako Fondoa (egoitza Oslon dute, Norvegia), "*Emakume zaurgarrientzako giza eskubideen inguruko formazioa*" proiektuarekin hasi zen, 12 hilabeteko iraupenarekin.

Formakuntzako proiektu honekin, 6 hezkuntza zentro, giza eskubideak urratuak izan dituzten emakumeentzako trebakuntza prozesuarentzako 8 zentro eta inplikaturik egon diren herrientzako laguntza/aholkularitza legalaren 2 zentro sortu ziren. Zentro hauetan, bakarkako zein familiarentzako aholkularitza sesioak egiten dira, potentzialki giza eskubideak errespetatzen ez zaien pertsona zaurgarrientzako.

Proiektu hau martxan jartzearekin, desegituratutako 73 famili egoera identifikatzea lortu zen. Laguntza/aholkularitza legaleko zentroen bitartez, kasuen %86ari irtenbidea bilatu zitzairen. Kasu horietan, askatasunetik galarazita, bortxatuak edo eta alargunen trafikoan aurkitzen ziren emakumeak ziren. Jarraipen jarrai baten bitartez eta bakarkako zein familiako aholkularitza sesioak eginez.

Proiektua, RED Network WED trust Chellampatti-en bitartez zabandu zen, Tamil Nadun, India. Gainera, proiektu honek, biztanleria indartzeaz gain, giza eskubideen inguruko ezagutza eta esperientzia eskuratu zuen.

2009/2010 urte bitartean, Haurralde Fundazioarekin batera, hurrengo proiektua eramaten da aurrera: "Nathan Block-eko landako emakumeentzako Giza Eskubideak" 31.516,05€-tako kostea duena (25.120,15€ Beasaingo Udalak finantzaturakoak). Proiektu honen helburua, Natham-eko eta Sanarpatti Block-eko (Indiako hegoaldea) guneeetan aurkitzen diren 8 udalerrietako emakumeen formakuntza profesionala eta giza eskubideen inguruko formakuntza zabaltzea da. Guzti hori, eskulanak,

HAURRALDE FUNDAZIOA

ahalbidetzezko hitzaldiak, giza eskubideen hezkuntza eta formakuntza eta genero indarkeriaren inguruko aholkularitza eta laguntza legalaren bitartez. Proiektua, Dindigul-eko estatuan aurkitzen ziren autolaguntzako sareak indartu ditu, emakumeari ahalbidetzea emateko eta proiektu markoaren barruan aurrera eramán diren ekintzen iraunkortasunaren helburuarekin.

2010/2011ean Haurralde Fundazioa aurretik aipatutako proiektuaren bigarren fase bat aurrera eramaten du: "Nathan Block-eko landako emakumeentzako Giza Eskubideak, II. Fasea", 27.118,97€-takoa. Aurretik aipatutako proiektuarekin izandako emaitza onen ondorioz, bigarren fase bat burutzen da, non bertan, emakumeentzako ahalbidetze tailer ekimen berdinak egiteaz gain, sexu hezkuntza eta ugalketaren eta ama zein haurren heriotza tasen prebentziorako formakuntzak txertatzen dira.

Haurralde Fundazioa

Haurralde Fundazioa 15 urte baino gehiagoko esperientzia duen GGKEa da, garapen, emakume eta haurtzaro arloak lantzen dituenak. Lan etengabekoa eta iraunkorra egin du eta genero, bizi-kalitate, emakumeen sustapena eta Sexu eta Ugalketa Eskubide kontuetan apustu espezifikoa egin izatea nabarmentzekoak dira.

Ikusi Haurralde Fundazioko esperientzia 1.8. Eranskinean

Haurralde Fundazioak Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazio ekintzak aurrera eramateko orduan emakume elkarteekin egiten du lan Gipuzkoan. Agenda hauen barne eta jadanik orain dela urte anitz Irun, Tolosa, Urola Kosta, Urola Garai, Behe Urola, Beasain, Eibar eta Villabonako elkarteekin hitzarmenak mantentzen ditu.

Hutsuneak Betez Elkarteak orain dela zenbait urte elkarlanean aritu da Haurralde Fundazioarekin Ipar eta Hegoaldeko emakumeen arteko berdintasunaren inguruko gaiak landuz. Azken bi urteotan, konkretuki, maiatzak 28, Emakumearen Osasunaren Aldeko Nazioarteko Eguneko agenda feministan, hain zuzen ere.

Haurralde Fundazioa eta SAADOWen arteko erlazioa:

Haurralde Fundazioa SAADOW-arekin duen erlazioa, 2005an Dominic Joly kooperantearen bitartez hasten da. Tamil Nadu bisitatzen du Nagapattinam eman zen Tsunamiaren ostean bitartez. Bisita honen ondorioz, Haurralde Fundazioko zenbait boluntario eta kooperanteen arteko trukaketa ematen hasten da. 2006an, Ainhoa Cano Garmendia Tamil Nadu bisitatzen du eta 2007an, hilabete batez, **GONZALO ARANGUREN** joaten da. Une horretan da egun burutzen ari den lanaren diseinua hasten den unea, non gerora, Haurralde Fundazioa eta SAADOW arteko proiektuak gauzatzen hasten dira

2008an, gizarte langileko praktiketako den Naiara Garmendia boluntarioa, ikerketa eta informe bat garatzen du. Lan hau, Ioana Osa eta Patricia Ponce teknikak burutzen duten identifikazioaren eta diagnostikoaren planifikazio lanerako oinarri moduan erabiltzen dute. Ikerketa hau modu integral batean eramaten da aurrera SAADOW entitate bertako langileekin batera. Baita, haurrentzako hezkuntza zentro osagarriekin eta proiektuetako komunitateko xede-biztanleriarekin batera. Ikerketaren azterketaren eta teknikoan ondorengo bisitaldien ondoren, parte-hartzeko diagnostiko bat burutzen da (*IV eranskinean parte-hartzearen diagnostikoa atxikitzen da*).

Teknikoen bisitaldiaren bitartean, SAADOW-eko langile guztientzako zuzendutako proiektuen formulazioaren inguruko ikastaro bat eramaten da aurrera. Topaketa

honetan, proiektu baten atal ezberdinak nola eramaten diren aurrera erakutsi zitzaien, oso baliagarria izanik. Aurretik aipatutako "Nathan Block-eko landako emakumeentzako Giza Eskubideak" lehenengo zein bigarren faserako proiektuaren formulazioarentzako, ebazpenerako, justifikaziorako eta ebaluaziorako oso baliagarria izan ziren bertan aurrera eraman ziren bestaldeko iniziatibak.

3.2 Testuinguru lokala

Geografikoa:

Indiako errepublika, Asiako hegoaldean kokatzen da. Pakistan mendebaldean muga egiten duela, Nepal, Bhutan eta Txina ipar-mendebaldean eta Myanmar eta Bangladesh ekialdean. Kostatik eta Indiako ozeanotik gertu, Ceilan o Sri Lanka eta Maldiva irlak aurkitzen dira. Eta herrigune nagusienak Bombay (18,5 milioi biztanle), Kalkuta (15 milioi biztanle) eta hirigunea, Nueva Delhi (14 milioi biztanle).

India, 28 estatuetan banatuta dago, sei lurralde batasunekoak eta lurralde bat nazio kapitalean. Proiektu honen garapena ematen den zonaldea, Tamil Naduko estatuan kokatzen da, Chennai hirigunetik 460 km-tara. Hirigune hau, aitzinean Madras moduan ezagututa, Indiako laugarren hirigunerik jendeztatuena da, 7 milioi biztanleekin. Hirigune hau, Indiako hegoaldean kokatzen da eta zehatzagoak izanik, Dindigul distrituan. Distritu honetan, 8 herrialde hautatu dira Natham eta Sanarpatti Block-ean, non guzti horiek Karanthamalai mendien hegalean kokatzen dira, Indiako hego-mendebaldeko atean.

Herri hauek SAADOW-engatik hautatuak izan dira, beren txirotasunaren eta kulturaren mantenuan oinarrituz, emakumeen bizi egoera muturreko ahultasun batean aurkitzen direlako. Iniziatiba honetarako hautatutako herriak hurrengoak dira: Sambaipatti, Nehru Nagar, Ayyapatti, Velampatti, Kuttoor, Sathampadi, Pudupatti, Othinipatti, Laxmipuram, Thethampatti

Biztanleria:

1.205.073.612 biztanlez osatutako populazioa osatzen du Indiak, non munduko %17aren biztanleria adierazten du. INDEX Mundik 2011ean burututako balioespenak, Indiako populazioa hurrengo moduan sailkatzen digu:

- 0-14 urte: % 29,7 (187.450.635 gizon/ 165.415.758 emakume)
- 15-64 urte: % 64,9 (398.757.331 gizon/ 372.719.379 emakume)
- 65 urte edo gehiago: % 5,5 (30.831.190 gizon/ 33.998.613 emakume)

Datu hauek Indiako bizi-baldindatza nolakoak diren erakusten digu, non biztanleriaren %5,5 gutxiengo batzuk 65 urteak gainditzea lortzen dute.

Bertako hizkuntza ofiziala, ingelesa eta hindia da, nahiz eta beste 22 hizkuntza ofizialekin eta aurkitzen garen eskualdeko beste 2.000 dialekto inguruan elkarrekin bizi. Hizkuntza ofiziala, ingelesa eta hindiaz gain, proiektua burutzen den Tamil Nadu-ko eskualdean, munduko hizkuntzarik aitzinena aurkitzen da, Grekoa, Latina edo Txinoarekin batera, 50 milioi pertsonengatik baino gehiagoengatik hitz eginda. Tamil izena du hizkuntza hori.

Jarduera ekonomikoak:

Espainiako enbaxadaren arabera, nekazaritza da Indiako jarduera ekonomiko nagusiena, aktibo dauden biztanleriaren %55 mantentzen baititu. Nekazaria sektorea %3,8a hazi zen 2010/2011 lehenengo 6 hilabeteen urteko zergetan. Iraultza berdearen ondoren, lehenengo hazi hibridoak eta bioteknologiko sektorea sartzearekin batera, biztanleriaren eta ekonomiaren euskarri nagusienak bihurtu dira. Hala eta guztiz ere hobekuntza hauek ez dute hazien eta hiri aberatsak eskaintzen dituzten inputen dependentzia geldiarazi. Indiako nekazaritzaren estruktura desegokia, zenbait ureztatze zaharkituen sistemen biziraupena dakar, oinarrizko teknologiarekin, ongarrizko gabezia, ustiapen txikiak eta neurri on batean, autokontsumorako eta kapitalizazioarekin arazoak. Ustiapenen %60a, hektarea bat baino gutxiago du. Eta hauen aurrean, merkatura guztiz zuzenduta dauden landatze produktuen ustiapen handiak, eta bitarteko nekazari sektore bat, lehen hastapenak barneratu dituztenak aurkitzen da iraultza berde honetan.

Gehien landatzen diren produktuak dira: arroza, garia, artatxikia, basartoa, artoa, garagarra, tea, kafea eta azukre kanabera. Bestaldetik esan, fruta-arbolak eta landare oleaginosoak ere landatzen direla: kokoa, mangoa, platanoa, anakardoak, lekaleak, jengibrea, kurkuma, kotoia, sesamoa, alfonzigoa, kolza eta piperbeltza. Faktore guzti hauen garrantzia kontutan izan arren, existitzen den prozesu honen arrakasta zehazten duena: faktore klimatologikoa da.

2011eko PNUD informearen arabera, Indian, aldaketa klimatikoak, gutxi gora behera, %17 nekazarien produktibitatearen beherakada handia eragin dezakeela dio, eta honek landa guneko biztanlerian eragin bortitza izan ditzake ze biztanleri hauek, nekazaritzatik bizi dira, baina aldi berean ere, hiriko biztanleriarengan eragina izango du zeren elikagaien prezioa goraka egingo baitu.

Elikadura eta nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen arabera, aitortzen da abeltzaintzaren ekarpenaren handitzeak, pobrezia arindu egiten duela modu zabal batean. Bereziki herriaren lur elkorretan eta erdi-elkorretan, non produkzioa aukera oso mugatuak dituen.

Produkzio sistemen artean, landako produktore txikien sistema mistoak nagusi izaten jarraitzen dute, laborantza eta abeltzaintza integratzen dute eta ekologikoki jasangarriak dira.

Baliabide naturalen agortze azkarrak, zehazki komuneko propietatean aurkitzen direnak, biztanleriaren eta ganaduaren hazkuntza tasaren ondorioz eta ekoizpen ez iraunkorren praktika hartzeak, biztanleri txiroarengan, baztertuarengan eta lurrik ez duten horiengan eragin handia izan du. Zehazki emakumeengan, non errekurso horietaz menpe dira beraien ganaduarentzako eta norberaren biziraupenerako. Diru-sarrerak eragindako animalia proteina eskaeraren goraldiak eta elikadura ugazabaren aldaketak, errekurso naturalengan presioa areagotu du.

Indian aurkitzen diren ingurugiroaren gaineko abeltzaintzak duen eraginik nagusienak hurrengoak dira:

- Produkzio industrialak eta hegaztien ekoizpenak sortutako kutsadura.
- Komuneko propietateen errekursoen gaineko presioaren hazkuntza (artzaintza lurrak, baso lurrak, errekurso hidrikoak) landa guneko ekologiko ezberdinetan.

Hezkuntza

India, GGI¹ 0,547 batekin, 179 estatuetatik 134.ean kokatzen da (2011ean Giza Garapenaren informean NBGP²ak argitaratu zuenaren arabera), hala ere, datu hau oso bihurtu da ze azkeneko urteetan Indiak ekonomi hazkuntza handia izan arren, ez du lortu biztanleria guztia modu berdinean altxarazi eta gizartea oraindik eta zulo handiagoak ireki ditu, non dirua gutxiengo baten eskuetan aurkitzen delarik eta Indiako gobernuaren datuen arabera, biztanleriaren %27.5ak, 236 milioi pertsona baino gehiago, eguneko, dolar baten 40 zentabo baino gutxiagorekin bizi dira eta 330 milioi pertsonak dira pobreziaren atalasetik behera aurkitzen direnak.

Indiak 1929ko legeak ditu, Haurren Ezkontzen Mesuraren Legea adibidez eta beste batzuk modernoagoak direnak haurren ezkontzak debekatzen dituztenak eta hori sustatzen dutenei zigortuak izango direnak. Lege hauek, gutxienez 18 urteak ezartzen dute ezkondu ahal izateko, baina ala ere adingabekoen arteko ezkontzak, egun oraindik normaltzat hartzen dira. UNICEF-ek kalkulatu du emakumeen %47 inguruan, 18 urteak bete baino lehenago ezkondu egiten direla, landa guneeetan datu hau handitzen delarik, %55 batera iritsiz. Legislazio hauei gehitzen zaion arazoetako bat, biztanleriaren jaiotze daten kopuru handi bat ez daudela inon erregistraturik da, beraz, beraien adin zehatza ez dauden inongo erregistro ofizialean jasota. Praktika hauek egitean, emakumeak hezkuntza jasotzerako orduan arazoak izatea eramaten die. Baita, honi kulturaren biziraupena berak eragiten duen horri atxikituz, emakumea hezkuntzatik baztertuta da lan egiteko eta ekonomikoki lagundu ahal izateko, etxeko lanetan, familiako kideen zaintzan, ... guzti hori eramaten gaitu Indiako emakumearen analfabetismo tasa altuetara, non behartuta ikusten dira beraien hezkuntza oso gazte diren unetik uztera. Alfabetatze ezaren tasa oso altua da eta biztanleriaren %64 batean aurkitzen da, hala eta guztiz ere, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak oso nabariak dira. Gizonezkoek alfabetatze maila %73,4 batean dauden bitartean, emakumeak %47,8 batean aurkitzen dira.

Analfabetismo egoera honek, Indiako landa guneeetan barneratzen bagara, askoz ere nabarmenduago da. Gure beste aldeko lankideen arabera, beraien duten ibilbidearekin eta esperientziarekin, proiektua zabaltzen diren 10 herrietako guneeetan, %49aren alfabetatzea eza, helduei dagokie, hau da, biztanleriaren erdia baino gehiago da funtzionalki analfabetoak eta ez dakite ez irakurtzen ezta idazten ere. Emakumeei dagokionez, analfabetismoaren barruan aurkitzen diren portzentaje hau askoz ere nabariago da, %73 batean hain zuzen.

Osasuna

UN-OPS dituen datuen arabera, Indiako bi milioi haur inguru urtero hil egiten dira 5 urteak bete baino lehenago eta horietatik erdia gutxi gora behera, beraien bizitzaren lehenengo hilabetean izaten dira. Gaixotasunengatik sortutako hauek heriotza asko, txerto batekin, nutrizio hobeto batekin eta higiene desegoki batek sortutako beherakoa ekidinez, egoera hobetuko luke. Indian aurkitzen diren 1.100 milioiko pertsonen %59ak kanpoan obratzen dute eta 97 milioi pertsonak ez dute iturrietatik ura edateko aukerarik.

Elikadura egokiaren eskubidea, instrumentu zehatz batzuetan ezagutzen dira, Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmena (24. artikuluan C atalean, 2. paragrafoan eta 27. artikuluan 3. paragrafoan), emakumeen aurkako diskriminazio modu guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioa (12. Artikuluan, 2. paragrafoan) eta ezgaitasunak dituzten pertsonen eskubideei buruzko konbentzioa (25. artikulua, f atalean eta 28.

¹ GGI: Giza garapenaren indizea

² NBGP: Nazio Batuen Garapen Programak

artikuluaren 1. paragrafoan), bere formulazio zehatzago eta maila orokorrago batean, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 25. artikuluan agertzen da.

India, nutrizio falta handia duen lurraldeetako bat da, hiru urte gutxiengo haurren erdiei eragiten dielarik. Malnutrizio hau amaren umetokian dauden unetik hasten da, amak elikadura egoki bat ez duelako, elikadura oso eskasa den familian bizi delako, emakumea jaten duen azkenekoa izaten delako, ... Bizitzaren hasiera oso garrantzitsua eta funtsezkoa da pertsonaren garapen fisiko, psikologiko eta intelektualarentzako. Adin goiztiarretan elikadura falta honi beste mota bateko hezkuntza falta zein osasuna falta gehitzen bazaizkio, arrisku handi batean jartzen dute haurraren guztizko potentziala lortu ahal izateko gaitasuna eta hori, bere bizitza helduaren arloetara zabaltzen joango da, zirkulu bat bihurtuz eta txirotasunaren zikloa eta herriaren gosetea indartuz.

Munduan erditzerako orduan laguntzarik jasotzen ez duten laurden bat, Indian ematen da. Horrek, amatasun heriotza tasa handia izatea darama eta Nazio Batuen arabera (Indiako 4 emakumeetatik 1 amatasunarekin erlazionatutako arazoengatik hil egiten dira) munduko amatasun heriotza tasaren %22a mantentzen du. OMEren datuen arabera, pertsona sanitario falta handia dago Indian, Bangladesh eta Indonesian. Nazio Batuek Indiako 400 landa guneeetan egindako ikerketa batean, %16a emakume haurdunen heriotza, beraien bikoteengandik etxe barruko indarkeriaren ondorioz ematen da.

MOEren arabera (Munduko Osasunaren Erakundea), India poliomieltis-aren munduko epizentro moduan kontsideratzen zen. Naiz eta egun erazuta egon, gaixotasun honen eraginaren ondorioz, Indiako biztanlerian urritasun eta ezintasun arazo anitzak utzi ditu.

Indian aurre egiten dion osasuneko beste arazo larrienetako bat IHESA da, Index Mundi datuen arabera, 2,4 milioi pertsona kutsatuta daudela balioztatzen da. Nahiz eta balioztatzeko, zenbaki hau oso zaila izan, ze landa guneeetako pertsonak osasun zentroetara ez baitira joaten. Horren inguruan informazio falta dago eta egun oraindik, lantzeko gai bat da. Beraz, pentsatzen da kopuru hori oraindik eta altuago dela.

Generoaren egoera

0,617ko GGI batekin India 129garren postuan dago 146 herrialderen artean. Errealitatean, indize hau oso eztabaidagarria da batez ere India eta Txinaren kasuan, non emakumeen aurkako hautazko abortuak eta umeen erailteza kontutan hartuko balitz indize hau larriagoa izango zen, azkeneko postuak harturik herrialdeen zerrenda horretan. Mutilenganako lehentasun nazional honek, sei urte bitarteko neska eta mutilen arteko ezberdintasuna igotzea ekarri du, India izanik emakumezko baino gizonezko gehiago dituen herrialde gutxienetako bat. Indian egin zen azken zentsuan duela 10 urte 927 emakume zeuden mila gizonezko eta gaur egun berriz 914 emakumezko daude mila gizonezko, arazoa areagotu delarik. Emakumeen gutxitze hau gehienbat hautazko abortuen eraginez da. Nahiz eta Indiako Gobernuak praktika hauek geldiarazi nahi izan dituen umeen sexua jairo aurretik jakitea legez debekatuaz, honek ez du lortu hautazko abortuak gelditzea haurra emakumezkoa denean eta are gehiago, emakumezkoak diren umeen erailteza areagotu du familiak jaiotzeaz dagoen haurraren sexua jakiteko ekografia klandestinoa ordaindu ezin duen kasuetan. Familiek, Indian dagoen sistema patriarkal sendoa dela eta nahiago dute semeak eduki. Emakumeak karga ekonomiko gisa daude ikusiak, baita "familiaren ohorearentzako arrisku gisa" ere, Giza Ikerketen Zentroko zuzendaria den Ranjana Kuamarik dionez. Emakumeekin erlazionatzen den karga ekonomiko hau doteen ordainketen ondorioa da, izan ere nahiz eta Gobernuak legez debekatu izan doteen sistema, oso errotua jarraitzen du ohitura honek Indiako gizartean.

Munduko elikatu gabeko hiru umeetatik bat Indian bizi da UNICEFek duela gutxi argitaraturiko datuen arabera, Indiako umeen erdiak, ia 55 miloi neska-mutil, bost urte betetzean behar luketen baina pisu baxuagoa daukate. Gainera, Indian emakumeen hilkortasuna altuagoa da (%6,4 altuagoa hain zuzen ere), hein batean lehen azalduriko haurren erailketaren ondorioz baina baita arrazoi kulturalak direla eta, emakumeei estatus baxuagoa ematen zaielarik eta Eskubide mugatuagoak dituztelako ere bai. Pobrezia eta bulnerabilitate egoeretan alaben elikadura beharrak alde batera uzten dira, semeek jaten dutelarik lehenengo eta janaria sobratzen bada alabek jaten dute. Honek desnutrizio tasa altuak dakartza nesken artean, zeinek erailtze pasiboa bultzatzen duen.

Ezkontzea emakumeenganako diskriminazio eta eskubideen urratze mota bat da askotan Indian, berarentzako esperientzia traumatiko bat bilakatzen delarik, norekin ezkondu aukeraterik ez dutelako eta ezkontzen erdiak 18 urte bete aurretik burutzen direlako. Kasu hauetan neskatoa bere familiarik urrundua izaten da familia ezezagun batera egokitu beharra izaten duelarik eta kasurik hoberenean beraien zerbitzari bilakatzen da. Nahiz eta dote ordainketa indargabetua izan zen eta Legez debekatua 1961ean, gaur egun oraindik emakumeak erailak izaten dira Indian gizonezkoa berriz ezkondu dadin eta dotea berriz kobratu dezan. Dote ordainketa honek, Vicente Ferrer Fundazioaren arabera, ezkontzen %80 kontzertatuak izatea ondorioztatu du, emakumeek hautatzeko aukerarik ez dutelarik. "International Women Health Coalition" (2008)-en arabera, Indian ezkontzen %14 15 eta 19 urte arteko nerabeen arteko ezkontza behartuak dira. CEDAW-ko Hitzarmena berrestean 1993 urtean, Indiak aitortu zuen 16 (2) artikulua inguruan ezkontza guztien erregistro unibertsal eta derrigortua babesten zuela; nahiz eta Gobernuak hau betetzeko saiakera egin duen eta 2006 urteko otsailetik Indiako Auzitegi Gorenetik gobernu zentralari eta estatuko gobernuak ezkontza guztiak derrigorrez erregistratzeko agindua eman, oraindik agindu hau ez da bete. Honek adinez behekoen ezkontzak gutxiagotuko lituzke eta baimenik gabeko ezkontzak ere bai, diru laguntzak lortzeko aukerak eta seme-alaben zaintza izateko aukerak gehituaz bikotearengandik banandu ezker eta senarra hil ezker bere ondareen zati juxtu bat lortu ahal izateko. Erregistro hau ez da praktikoa India bezalako herrialde handi batean, non ohitura, erlijio eta alfabetizazio maila ezberdin asko dauden.

Indiako emakumeek bizi dituzten Genero bortizkeria maila altuak, gizonenganako menpekotasuna mantendu edo gehitzeko helburuarekin, Indian bizi den bortizkeria estrukturalaren adierazgarri garbi dira; bortizkeria honek emakumeen ahalbide, askatasun eta aukerak erasotzen ditu. CEDAW-K aurkezturiko "Experiencias y Desafíos en el Comité Sobre la Eliminación de la Discriminación contra la Mujer" txostenean, Silvia Pimentel, aditu brasildarrak, Indian umeek jasotzen duten bortizkeria lantzeko bideen beharra nabarmentzen du, bestalde, gobernuak bortizkeriaren igotze bat nabarmendu duela adierazten du emakumeen estatusaren gutxitzearen adierazle. Gainera, plan koordinatu eta zabal baten beharra dagoela adierazten du fenomeno honen aurka borrokatzeko eta lege sistemak zein neurri hartzen dituen galdetzen du emakumeek jasaten duten bortizkeria ekiditeko.

Indian azken aldi gertaturiko bortxaketa masiboak, joan den abuztuan 11 urteko neska bat Jaipur-en (6 gizonek bortxatua eta organo ugalkorrak hautsi zizkiotena), aurreko urteko abenduan autobusean etxera zihoan fisioterapia ikasle bat 6 gizonek bortxatu zuten (autobuseko gidaria barne), etab. Mundu guztiko komunikabideek bortxaketa hauen inguruan hitz egin dute mundu mailan, herrialde honek dituen arazoak nabarmenduaz.

Gertaera hauek protesta masiboak eragin dituzte, gizarte hinduan agintariak emakumeen segurtasunarekiko duten atentzio falta salatzen. Nahiz eta mundu

osoan notizia izan bortxaketa kasu hauek, ez da gertaera berri bat Indian. Nueva Delhiko barne saileko krimen ministerio zentsuak 2011 urtean argitaraturiko datuen arabera, **20 minuturo emakume bat da bortxatua Indian**, lau kasutik batean bakarrik delarik bortxatzailea zigortua; analisten arabera honen zergatia polizian dagoen "ustelkeria" da. Gainera, UNICEF-en datuen arabera 3 bortxaketa kasu hauetako 1 adinez beheko nesken ematen da.

Gaur egun bortxatzaileek gutxienez zazpi urteko kartzela zigorra jasotzen dute, Kode Penaleko 376 atalaren arabera; zigorra 10 urtetara luzatu daiteke kasuaren larritasunaren arabera. Kode Penaleko 375 atalak koitoa barneratzen dituzten kasuak bakarrik sailkatzen ditu bortxaketa gisa, sexu orala eta objektu ezezagunak erabiltzen diren kasuak aide batera utziaz, nahiz eta hauek eragindako zauriak larriagoak izan daitezken.

Eragile pribatuen eskutik ematen diren bortxaketak Estatuko agenteen eskutik ematen direnak bezainbesteko kezkarriak dira. Indar Armatek egiten duten botere nagusikeriak, hein handi batean gobernu zentralaren arautze faltagatik, istripuak, bidegabeko atxilotzeak, tortura, bortxakeria eta sakeoak ondorioztatu ditu segurtasun indarren aldetik.

Vicente Ferrer Fundazioaren arabera, egunero 200 neska eta emakume inguru erortzen dira legez kanpoko trafikoa Indian. Beraietako %80 beraien borondatearen aurka. Fenomeno honen iturria Indiako emakumeek bizi duten pobrezia larria, alfabetatze eza, alarguntze goiztiarra, langabezia eta errekurtsio ekonomiko falta dira.

Antzinatik, emakumeen Giza eskubideak sistematikoki bortxatzen dituzten tradizioak eman izan dira Indian. Besteak beste:

- **Sati:** Hildako gizonaren emaztea bere senarraren gorpuarekin batera erretzean datza praktika hau. Nahiz eta hau hautazko praktika bat izan beraien maitasuna adierazteko, emakume asko behartuak izaten dira. Nahiz eta praktika hau deuseztatua izan den herrialdearen gehiengoan, oraindik hegoaldeko zonalde batzuetan mantentzen da.
- **Jarhar:** gudan hil diren gerlarien emazteen eta alaben hautazko imolazioari erlazonatuta dago tradizio hau, arerioak berauek atzeman ez ditzaten edota beraien alabekin ezkon ez daitezen.
- **Purdha:** Emakumeak senitarteko zuzenak ez direnengandik ezkutatzean datza. Itzulpen literala kortina edota belua da eta Indiako gehiengoan dago zabaldua ohitura hau bai musulmanen eta hinduen artean. Emakume eta gizonetzkoen arteko munduen artean banaketa trinko bat egiten du, pribatua eta publikoaren artean. Emakumeek beraien gorputza tapatzean datza, beraien formak izkutatuz. Honek emakumeen mugikortasuna oztopatzen du, askatasunarekin espresatzeko aukera gutxitzen du eta emakumeek gizonenganako duten menpekotasuna irudikatzen du.
- **Deva Dasi:** Batez ere indiako Hegoaldean ematen da; emakumeak Yellamma izeneko izate jainkotiarrari eskaintzen diote beraien burua. Beraietako gehienak 10 urte ingururekin hasten dira. "Ikutezinen" kastako neskek izaten dira gehienbat, zeintzun familiek beraien alaba Yellamma jainkosari eskaintzen dioten aho bat gutxiago izaten dezaten mantentzeko eta ezkontzako dotea ordaintzeko beharrik izan ez dezaten. Neska hauek prostituzioan sartuak izaten dira eta beraien bizitza eskale modura amaitzen dute.

Tradizio hauekin batera beste Giza Eskubide urratze mota batzuk ere ematen dira, eta are gehiago emakumeen kasuan, beraien kastagatik, tortura bidez, sexualki esplotatuak direnean, emakumeek etxebizitza erosteko eskubiderik ez izatean, genero bortizkerian, dotea eman behar izatean eta lehen aipatu ditugun ezkontza goiztiarrak

direla eta.

Proposamen hau identifikatzeko garaian, Indiako neskatoen eskolaratzean dugun esperientzian oinarritu gara, baita Indian dugun lan esperientzian ere eta baita egun dagoen legediaren azterketan ere. Bestalde, ezberdintasun egoeren azterketa bat egin da, ekintza/sarrera, baliabideen/onuren eskuragarritasuna, behar praktikoak eta interes estrategikoak kontutan hartuta. Azkenik influentzia faktoreak, aldaketa eta erresistentzia aztertu dira, emakumeen bakarkako eta taldeko ahalbidetze aukerak planteatzeko helburuarekin eta gizonezkoen botere aldaketa bat eman dadin. Genero azterketa sakonagoa *IV Eranskineko 2. puntuan*.

3.3 Justifikazioa

Indiak hazkuntza izugarria izan du azken urtetan ekonomia mailan munduko 5. ekonomia indartsuena bilakatu delarik eta Gobernu mailan pobrezia, langabezia eta ekitate ezaren aurka borrokatzeko apustu tinko bat egin du. Halere, hazkuntza ekonomiko honek ez du **pobrezia** maila berean gutxitu. Indian, gobernuak berak emandako datuen arabera, biztanleriaren %27.5, 236miloi pertsonatik gora, 0,40 dolarrekin bizi dira egunean eta UNICEF-ek emandako datuen arabera 330miloi pertsona pobrezian bizi dira.

Pobrezia hau areagotu egiten da emakumeen kasuan, "**pobrezia feminizazioa**" bezala ezagutzen den fenomeno baten ondorioz; mundu mailan 1.500miloi pertsona bizi dira pobrezian, horietako 330miloi Indian bizi dira eta beraien gehiengo emakumezkoak dira. Nahiz eta Indiako konstituzioak eskubide berdinak ematen dizkieten emakumezko eta gizonezkoen eta Gobernuak emakumeak babesteko legeak sortu dituen, lege hauek ez dira iristen gehienguan alfabetatu gabeak diren herrietara eta emakumeek ohiko betebeharrak ugaikorrak, emankorrak eta komunitarioak betetzen dituzte.

Emakumeak arrisku handiagoa daukate pobrezia larrian egoteko arrazoari askotarik, beraien artean emakumeen Giza Eskubideen aurka dauden ohitura eta tradizioak direla medio, alfabetatze tasa baxuagoak ematen direla emakumeen artean eta hilkortasun tasa altuagoak jaio baina lehenago ere. Izatez, India eta Txina dira emakume baina gizon gehiago dituzten herrialde bakarrak, lehen azaldu bezala generoaren egoera eta umeen eraketa dela eta. Emakume hauek mailegu, lur eta herentzia bezalako baliabideak ez dituzte eskuragarri. Ez da beraien lana aintzatesten ezta saritzen ere. Emakumeen osasun eta elikadura beharrak ez dira lehentasunezkoak, hezkuntza eta laguntza zerbitzuetara ez dute sarrera egokirik eta etxean eta gizartean erabakiak hartzeko duten boterea oso baxua da. Pobrezia zikloan harrapatutako emakumeak bere egoera aldatzeko ahalbide eta zerbitzuetarako sarrerarik ez du. Pobrezia zikloan harrapatutako emakumeek ez dute beraien egoera aldatzeko ahalbiderik, gainera gizartean hain errotuak dauden botere erlazioetan harrapatua geratzen dira eta gizarteak orokorrean egoera honen atzematerik ez duenez oso zaila egiten da egoera honetatik irtetea.

Iniziatiba hau identifikatzeko garaian, lehen aipatu gisa, diagnostiko bat egin zen 2008 urtean Ioana Osa eta Patricia Ponce teknikarien eskutik; honen ondorioz "**GGEEak Nathan Block-eko landa emakumeentzako**" izeneko proiektua gauzatu zen, zein bi fasetan burutu zen, 16 herrixketara iritsiaz. Iniziatiba hauei esker herrixka hauetako emakumeen egoera hobetzea lortu zela ikusi zen eta beraiek gizartean duten egoera hobetu zela ere bai. Iniziatiba honek emakumeengan eduki zuen eragina uste baina hobea izan zen eta parte hartzea hasieran uste baina handiagoa. SAADOW erakundeak proiektuan parte hartu zuten emakumeekin egin duen jarraipenari esker (kooperanteek baieztatua izan dena), proiektuan parte hartu duten emakumeen egoera

ekonomikoak hoberrantz egin du.

Iniziatiba honentzako azterketa berri bat egin da Dindigul estatuko emakumeek dituzten arazoen inguruan lan merkatuaren sarrera eta diru sarrerei dagokionean. SAADOWk identifikazio lanak egin ditu Dindigul Distrituan premia gehiena daukaten eta Giza Eskubideak gehien urratzen diren 10 herrixketan; beraien esperientzia eta inguruaren ezagutza kontuan harturik. Hautatutako herri hauek ALT (Auto Laguntza Taldeak) izango dituztela kontutan hartu da. Talde hauek nahikoa arruntak dira komunitate hauetan eta proiektuak eragin positiboak izateko garaian ezinbestekoak dira gizarte mailako ekintzetan (formakuntza, sentiberatze ekintzak eta diru sarrerak lortzeko ekintzak,...). Egitura hauek aurrezki eta mailegu taldeak sortzen dituzte, aukera gutxien dituzten pertsonen dependentzia gubxituaz, batez ere emakumeen kasuan, mailegu txikiak emanaz diru sarrerak lortzeko ekintzak martxan jarri ahal izateko; salerosketa negozio txikiak, abelzaintza, jateko elikagaien prestatzea, etab. Sare hauek sendotzeak beraien iraupena ziurtatzen du eta baita funtzionamendu egokia bermatu ere.

Norberaren lan postua sortzea aukera eskasen aurrean, beraien egoeratik irteteko aukera hobe bat da baina bestalde honako arazoei aurre egin behar izaten diete diru sarrerak sortzen dituzten aukeretan parte hartzeko:

- Emakumeek ez dituzte ondasun materialak maileguaren garantia gisa emateko.
- Prozedimendu zorrotzak daude, zeintzuk emakume hauen gutxieneko alfabetatzea eskatzen duten.
- Emakume hauen proiektuak txikiak izaten dira eta mailegu txikiagoen kostu administratiboak gastu administratibo handiak izaten dituzte alderatu ezker; honek maileguak eskatzeari zailtasun asko eransten dizkio emakumeen kasuan.
- Azkenik kontutan hartu behar da banketxean lan egiten dutenak kasta ertain-altuetako ikasketak dituzten gizonak izaten direla eta emakume hauek kasta baxukoak direla eta kasu gehienetan ikasketarik ez dutela.
- Askotan mailegugileengana eta lurren jauntxoengana jo beharrean aurkitzen dira.

Haurralde zein SAADOWren ikuspuntutik, emakumeek ahalbidetze prozesu bat hasi dezaten lehen pausua giza zein baliabide materialak eskuragarri izatea da eta horretarako bideak eraikitzea, emakume hauek beraien bizitzako hautaketa estrategikoak burutu ditzaten.

Emakumeak historikoki desabantaila egoera batean egon dira ez maileguak, baliabide materialak, propietatea eta duruari begira bakarrik, baizik eta hezkuntza eta negozioek nola funtzionatzen dutenaren inguruan ezagutzarik ez dutelako ere bai. Halere, baliabide horiek eskuragarri izatearekin soilik ez da ematen emakumeen ahalbidetzea edota berdintasuna; horretaz gain emakumeek baliabide horiek erabiltzeko trebezia eduki behar dute horrela beraien helburuak betetzea lortzeko. Baliabide hauek emakumeak ahalbidetu ahal izateko, beraien nahi moduan erabiltzeko aukera eduki behar dute. Kaber-ek (2001) "agentzia" hitza erabiltzen du emakumeak erabakiak hartzeko, negoziatzeko eta baliabideen beharrezko erabilera era eraginkor batean egiteko prozesua deskribatzeko. Emakumeak erabakiak hartzeko prozesuetatik baztertuak izan direnez beraien bizitza osoan zehar, askotan beraien xedeak lortzeko eta xedeak definitzeko baliagarri izango litzatekeen agentzia honen zentzurik ez dute. Askotan xede hauek bizi diren gizartearen eragina izan dezakete eta gizartean dauden injustiziei aurre egin ordez errepikatuak izan daitezke esturktura hauek. Honengatik proiektu honek alde batetik emakumeak ahalbidetze ekonomiko prozesu batean murgildu nahi ditu pobrezia, bortizkeria eta beraien Eskubideen urratzetik irteteko aukera izan dezaten baina prozesu hau ezingo litzateke eman gizarte ahalbidetze